



GATAZKA MINERALEN DEFINIZIOA

Gatazka mineralen gaia jorratzeko, zertaz ari garen zehaztu behar dugu lehenik eta behin. Lehenbiziko definizioa (eta errazena) hau dugu: gatazka, gehiegikeria edo giza eskubideen urraketekin batekin lotura duten mineralak dira.

Bigarren Mundu Gerra amaitu, bloke handiak desegin eta Berlingo Harresia erori ondoren, aldatu egin da geopolitika. Egun, baliabide naturalak eskuratzea eta haien kontrola izatea dugu gatazka-iturri nagusietako bat.

“From Conflict to Peacebuilding The Role of Natural Resources and the Environment” (UNDP, 2009) txostenaren arabera, 1990az geroztik 18 gatazka izan dira munduan baliabide naturalak eskuratzeko edo kontrolatzeko lehiak eraginda; estatuen arteko gatazken % 40 ere arrazoi horrek eragin ditu.

Are gehiago: baliabide horiek egoteak % 50 areagotzen du gatazka berriro pizteko probabilitatea.

Hainbat erataria harremandu daitezke gatazkek zein gehiegikeriak eta mineralak. Alde batetik, mineralak eskuratzeko eta kontrolatzeko gatazkek dauzkagu. Baina, badaude ere beste arrazoi batzuek eragindako gatazkek, baina inguru horietan mineralak egoteak (edo haien erauzketaren eta salmentaren kontrolak) hauek luzatu eta gogortu egiten dituztenak. Izan ere, mineralek ematen duten diruarekin finantzatzen dira gatazkek eta haietan esku hartzen duten taldeak. Mineral bat “gatazka mineralizat” jotzeko, beraz, ez du zertan izan gatazka-eragile erauzketak edo salerosketak: aski da, fase horietakoren batek lotura izatea haren finantziazioarekin, gatazkaren areagotzearekin edo giza eskubideen urratzearekin. Kasu horretan, gatazka mineralizat jo daiteke mineral hori.

Dena den, aipatu beharra dago, badaudela mineralak zeintzuk diren eta nondik datozen zehazteko saiakera edo gerturatzeko teoriko ezberdinak.

Lehenbiziko ikuspegia zedarritua da, bai mineral-kopuruari, bai haien jatorri geografikoari dagokienez. AEBko “Dodd Frank, finantza-sektorea aldatzeko eta kontsumitzailea babesteko legearen” 1502. atala du oinarri ikuspegi horrek. Lau mineral dira ikuspuntu horren arabera, gatazka mineralak: **tantaloa**, **wolframa**, **eztainua** eta **urrea** (ingelesez, **3T+G** deitzen zaie, mineralen siglengatik). Bestalde, Laku Handien eremua bakarrik hartzen du aintzat ikuspegi honek.

Mugatutaz daukate ikuspuntu hori nazioarteko komunitatearen parte batek eta, batez ere, gizarte zibilarenak. Izan ere, nazio batuek ere hainbat erantzun (ebazpenak, aginduak, adituen iritzia) eman izan dituzte baliabide naturalekin lotutako gatazkek direla eta¹.

Horregatik, ikuspegi zabalagoa proposatzen du gizarte zibilak. Lehengaien eta haien horniduraren (arduratsua den edo ez) trazabilitatea kontrolatzeko premia aldarrikatzen du ikuspegi honek; alegia, ez hartzeko aintzat mineral edo lehengai jakin batzuk bakarrik, baizik eta arrisku-irizpide baten arabera jarraipena egiteko eta gatazka-eremu batetik (edo gatazka izateko arrisku handia dagoen batetik) datorren edozein mineral edo lehengai hartzeko kontuan.

ELGE ere (Ekonomia, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea) “Premiazko ardura” deritzon ikuspegi honen aldekoa da, 3T+G mineraletatik hastea gomendatzen badu ere .

ELGE ere (Ekonomia, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea) arriskueta oinarritutako “Premiazko Ardura” deritzon ikuspegi honen aldekoa da, eta bere gidak 3TG entzat eranskina dakar².

¹ Trazabilitateak ematen duen gardentasunari esker jakiten da mineral edo lehengai batek zer jatorri duen eta zer ibilbide egin duen, erauzi zutenetik azken produktu bihurtu arte.

² “Premiazko arduraren” gidaz ari gara. Ezinbestekoa da gida hori gatazka-lekuetatik eta gatazka-arriskuan daudenetatik datozen mineralen hornidura arduratsua egiteko. Eztainuari, tantaloari, wolframari eta urrearri buruzko gehigarriak ere badaude, aipatutako gidaz gain: <http://www.oecd.org/daf/inv/mne/GuidanceEdition2.pdf>

ARIKETA-PROPOSAMENA

MINERALEN ETA ELEMENTU KIMIKOEN ERABILERA NAGUSIAK

Elementu Kimikoen taula periodikoa

Número atómico: 1
 Peso atómico: 74
 Símbolo: W
 Nombre: Wolframio
 Configuración electrónica: [Xe] 4f¹⁴ 5d⁴ 6s²

* Los pesos atómicos son los adoptados por la IUPAC, en 1995.
 * Los valores entre paréntesis se refieren al isótopo más estable.

Helburuak: Ikusaraztea zer eragin duten mineralak eta elementu kimikoek gure eguneroko bizimoduan.

Materiala: Elementu kimikoen taula periodikoa. Aipatutako lau mineralen erabilera nagusie buruzko PDF bat:

<http://bit.ly/1geq6n6>

Garapena:

- 1.- Banatu ikasleak 4 laguneko taldetan.
- 2.- Banatu taula periodikoa ikasgelako talde-kopuruaren arabera. Elementu kimiko batzuk esleitu talde bakoitzari. "Gatazka-iturri den mineralen" bat, gutxienik, egon behar du talde bakoitzeko elementu kimikoen artean.
- 3.- Hamabost minutu izango ditu talde bakoitzak honetarako: egokitu zaizkien elementu kimikoekin egin daitezkeen produktu eta azken erabilera guztiak bilatzeko Interneten.
- 4.- Eman bost minutu produktu eta erabilera horiek irudikatzen moduak aurki ditzaten (marraztu, ebaki...). Horretarako, elementu kimiko bakoitzeko orri zuri bat hartu behar du talde bakoitzak eta han ipini elementu horri buruzko informazio guztia (produktuak eta azken erabilerak).
- 5.- Informazio hori orrietan jarri ondoren, osatu taula periodiko bat, non orri bakoitza elementu bat izango den.
- 6.- "Gatazka-mineraletatik" orri bat baino gehiago egongo denez elementuko, orri batean bildu behar dira talde desberdinen ekarpenak, elkarrekin ados jarrita.

INFORMAZIO GEHIAGO ESKURTZEKO BALIABIDEAK

- Kanpainaren webgunea: www.gatazkarikgabekoteknologia.org
- Dokumentua: http://www.unep.org/pdf/pcdmb_policy_01.pdf
- Ikusi **02. Fitxa** "Gatazka-mineralak: gure poltsikoraino egiten duten ibilbidea, eta ondorengoa": http://www.tecnologialibredeconflicto.org/wp-content/uploads/2014/06/02_Ficha_La_ruta_CONSOLIDADA_EU.pdf
- Edukialboan-en 9.alea: **Gatazka Mineralak**
- Eurac-en webgunea: <http://www.eurac-network.org>
- Dokumentua "Breaking the links": http://www.tecnologialibredeconflicto.org/wp-content/uploads/2014/06/Rompiendo-los-vinculos_eus.pdf
- Dokumentua: <http://www.oecd.org/daf/inv/mne/GuidanceEdition2.pdf>



ALBOAN

-en proiektu bat



lortzeagatik

Jesuitek bultzatutako Fundazioa
www.alboan.org

www.gatazkarikgabekoteknologia.org